IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 916
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

EUSKARA
euskara@pasaia.net

1. Sarrera

Pasaiako Udalak, Euskararen Aholku Batzordearen bidez, datozen 10 urteetarako udalerriko euskararen erabilera sustatzeko plan estrategiakoa osatu nahi du. Aurreko planean, 2010–2020koan, barruti bakoitzean eta eremu bakoitzean zer landu behar zen jaso zen eta lehentasunak zehaztu ziren. Baina plan berri honek, zer gai landu behar diren zehazteaz gain, gai horiek nola eta norekin landu behar diren ere adierazi beharko du. Horretarako, proposatzen diren ardatzak lantzeko bideak partaide izango diren eragileekin zirriborratuko dira.

2. Enpresa adjudikazio hartzailearen egitekoa

- **Sentsibilizazio eta komunikazio plana zehaztea**
  Komunikazio plan oso bat garatu eta gauzatu beharko du parte-hartze prozesura ahalik eta eragile eta herritar gehien biltzeko. Komunikazio eta sentsibilizazio lan horrek plan estrategikoa osatu bitartekoa eta plana osatu ondorengo aurkezpen eta zabalkundea jasoko ditu.

- **Proposatutako ekintzak nola eta norekin landu behar diren zehaztea**

Plan estrategikoan zehazten diren lan ardatzak zeregin konkretuetara jaitsi beharko dira. Hau da, plan estrategikoak lan ardatz horietako zereginak nork landuko dituen eta nola landuko diren zehaztu beharko du.

- **Plana komunitateko sektoreen iritzi eta ekarpenekin osatzea eta elkarlanerako sareak zabaltzea.**

Plan estrategikoa diseinatzeko Eusko Jaurlaritzak EBPN-n adierazitako esparru, helburu, estrategia eta ekintzak kontuan hartuko dira, baina, era berean, Pasaiako eragile eta sektoreen iritzi eta ekarpenak jaso beharko dira. Azken horiei garrantzi berezia emango zaie, gainera, plana errealago egiten baitute ekarpen horiek. Hori dela eta, planaren helburuetako bat Pasaiako eragile eta sektore desberdinen iritzi eta ekarpenak jasotzeko egitura sendotzea eta elkargune iraunkor berriak sortzea izango da. Entitateen ekarpenak jasotzearekin batera udalerrian erreferente diren pertsonen iritziak jasotzea ere garrantzitsua izango da.

- **Dinamika parte-hartzaileen bitartez euskararen aldeko indarrak aktibatzea eta lan-talde iraunkorrak sortzea.**

Komunitateko eragileen eta sektoreen ekarpenak lan-metodo parte-hartzaileak erabiliz jasoko dira, eta aurrerantzean lan-metodoa izateko bokazioarekin abiatuko dira gainera; alegia, sortuko diren lan-taldeak iraunkortzeko ahalegina egingo da. Diseinatuko den plan estrategikoaren gidaritza Pasaiako Euskararen Aholku Batzordeak izango du, baita jarraipena egiteko ardura ere, eta sektorekako lan-taldeek beren lekua izango dute Aholku Batzordean. Beharrezko ikusten diren elkargune berriak datozen 10 urteetan zehar modu progresiboan aktibatzen joateko proposamena zehaztuko da.

- **Elkarguneak gidatu edo dinamizatzeko eremua ongi ezagutzen duten eragileetako kideak prestatzea**

Elkarguneak eraginkorragoak izateko eta autonomia gehiagorekin funtzionatu ahal izateko, dinamizatzaileak gertukoak izan daitezen saiatu behar da. Plan estrategikoa osatzeko prozesua prestakuntza gisa plantea daiteke, hor ikus daiteke zein pertsonek duten interesa eta gogoa dinamizatzaile rola hartzeko eta Euskararen Aholku Batzordera

etortzeko. “Euskararen ekintzaileak” behar dira eremu eta elkarguneetan.

- **Euskaldun hartzaileak eta erdaldunak prozesura batzea**

Euskaldun hartzaileek eta erdaldunek plan estrategikoan parte har dezaten estrategia bereziak lantzea kontuan hartuko da. Aurreko planean euskaldun aktiboak izan ziren protagonista, eta oraingoan euskaratik urrutiago daudenak erakartzeko ahalegina egin beharko da horiengana iristeko bide berriak jorratuta.

- **Haur eta nerabeen iritziak eta proposamenak jasotzea**

  Herriko subjektu aktibo dira Pasaian haur eta nerabeak, eta euskararekin dituzten bizipen, kezka eta proposamenak jaso behar ditu plan estrategiko berriak. Proposamenak jasotzeaz gain, horiek lantzeko eta horien jarraipena egiteko elkarlanerako bideak jorratu beharko dira prozesu honetan haur eta nerabeekin.

- **Barruti bakoitzeko beharrak eta lehentasunak jasotzea.**

Pasaiako herria lau barrutiz osatua dago eta bakoitzaren egoera soziolinguistikoa oso desberdina da. Barruti bakoitzak hizkuntzaren normalizazio bidean lehentasun eta behar desberdinak ditu. Bakoitzaren diagnositik abiatu eta abiapuntu hori hobetzeko udalerri mailako proposamenak zehaztu beharko ditu.

- **EBPNren lan-ildo eta lehentasunak kontuan hartuta**, **datozen 10 urterako plana zehaztea.**

  Eusko Jaurlaritzak EBPN-n adierazitako esparruak kontuan hartuz, 2021-2030 bitarteko helburuak, estrategiak eta ekintzak jasoko ditu plan estrategikoak, eta 10 urterako jarritako helburuak ekintza zehatzetara ekarriko dira. Horrela, planaren tarteko ebaluazioak egin eta helburuen betetze-maila neurtu ahal izango da. Betetze-maila neurtzeko adierazleak finkatu beharko dira.

3. Proposamenak baloratzeko irizpideak

Prezioa aintzat hartzeaz gain, proposamenak baloratzeko ondokoak hartuko dira kontuan:

- Enpresa esleipendunak aurkezten duen txosten teknikoaren kalitatea.
- Plana osatzeko proposatzen duen lan-metodologia.
- Plana diseinatu eta osatuko duen lan-taldearen curriculuma eta esperientzia.

Txosten teknikoan, kontratistak, gutxienez, 2. atalean jasotako puntuak landuko ditu. Horiek gutxieneko gisa ulertuko dira eta enpresa esleipendunak egoki iritzitako proposamenak egin ditzake prozesuaren kalitatea hobetze aldera.

4. Lana egiteko epea

- Guztira 6 hilabeteko epea izango du esleipendunak lana bukatzeko, kontratua sinatzen den egunetik kontatzen hasita.

5. Aurrekontua

- Guztira 34.000 € (bez barne):

Parte-hartze prozesua eta planaren proposamena osatzeko eta komunikazio plana gauzatzeko baliatuko da diru-kopurua (euskarri komunikatibo guztiak barne).

Pasaian, 2021eko martxoaren 3an

PASAIKO UDALEKO EUSKARA SAILA

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 916
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

EUSKARA
euskara@pasaia.net

1. Introducción

El Ayuntamiento de Pasaia, a través de la Comisión Asesora del Euskera, quiere elaborar un plan estratégico para los próximos 10 años, con el fin de fomentar el uso del euskera en el municipio. En el plan anterior para los años 2010-2020 se recogió lo que había que trabajar en cada distrito y en cada ámbito y se definieron las prioridades. Sin embargo, este nuevo plan además de definir qué temas hay que tratar, también tendrá que indicar cómo y con quién se tienen que tratar esos temas. Para ello, los cauces para trabajar los ejes propuestos se esbozarán con los agentes participantes.

2. Función de la empresa adjudicataria.

- **Definición del plan de sensibilización y comunicación**
  Deberá desarrollar y ejecutar un plan integral de comunicación, para sumar al proceso el mayor número posible de participantes y agentes. Esta labor de comunicación y sensibilización recogerá el proceso de elaboración del Plan Estratégico y su posterior presentación y difusión.
- **Definir cómo y con quién trabajar las acciones propuestas**

Los ejes de trabajo que se definan en el plan estratégico se deberán plasmar en tareas concretas. Es decir, el plan estratégico deberá determinar quién y cómo desarrollará las tareas englobadas en dichos ejes.

- **Elaborar el plan con las opiniones y aportaciones de los diferentes sectores de la comunidad y ampliar las redes de colaboración.**

Para el diseño del plan estratégico se tendrán en cuenta los ámbitos, objetivos, estrategias y acciones señalados por el Gobierno Vasco en el Plan General de Promoción del Uso del Euskera, pero también se deberán recoger las opiniones y aportaciones de los diferentes agentes y sectores de Pasaia. Estos últimos adquirirán una relevancia especial, ya que estas aportaciones posibilitan que el plan sea más real. Por ello, uno de los objetivos del plan será el refuerzo de la estructura para recoger las opiniones y aportaciones de los diferentes agentes y sectores de Pasaia, así como la creación de nuevos puntos de encuentro permanentes. Asimismo, será importante recoger las opiniones de las personas referentes en el municipio, además de las aportaciones de las entidades.

- **Activar las fuerzas a favor del euskera a través de dinámicas participativas y crear grupos de trabajo permanentes.**

Las aportaciones de los agentes y sectores de la comunidad se recogerán mediante métodos de trabajo participativos, los cuales se iniciarán con vocación de que se conviertan en métodos de trabajo constantes; es decir, se procurará la permanencia de los grupos de trabajo que se vayan a crear. Tanto la dirección como el seguimiento del plan estratégico que se diseñará correrán a cargo del Consejo Asesor del Euskera de Pasaia, y los diferentes grupos de trabajo sectoriales tendrán su lugar en dicho Consejo Asesor. Se concretará una propuesta para ir activando progresivamente durante los próximos 10 años los nuevos puntos de encuentro que se consideren necesarios.

- **Formación de los/las integrantes de los agentes que conocen bien el ámbito, para la dirección o dinamización de los puntos de encuentro.**

Hay que procurar que las personas dinamizadoras sean cercanas, para que los puntos de

encuentro sean más eficientes y puedan funcionar con más autonomía. El proceso de elaboración del plan estratégico se podrá plantear como una formación, ya que en dicho proceso se puede observar qué personas tienen interés y ganas de adoptar el rol de dinamizador y acudir al Consejo Asesor del Euskera. Se necesitan "activistas del euskera" en los diferentes ámbitos y puntos de encuentro.

- Incorporación al proceso de euskaldunes receptores y castellanoparlantes

Se planteará la utilización de estrategias específicas para que euskaldunes receptores y castellanoparlantes participen en el plan estratégico. En el plan anterior los/las euskaldunes activos fueron protagonistas, y en el plan actual debemos realizar un esfuerzo por atraer a personas más alejadas del euskera, estudiando nuevos cauces para llegar a dichas personas.

- Recoger las opiniones y propuestas de niños/as y adolescentes

  En Pasaian los/las niños/as y adolescentes son sujetos activos del municipio, y el nuevo plan estratégico debe incluir sus vivencias, inquietudes y propuestas en referencia al euskera. Además de recoger las propuestas, durante este proceso habrá que trabajar con los/las niños/as y adolescentes vías para el desarrollo y seguimiento de dichas propuestas.

- Recoger las necesidades y prioridades de cada distrito.

El municipio de Pasaia lo conforman cuatro distritos, con situaciones sociolingüísticas muy diferentes. Cada distrito tiene diferentes prioridades y necesidades en el ámbito de la normalización lingüística. Partiendo del diagnóstico de cada distrito, se definirán propuestas a nivel de municipio para mejorar dicho punto de partida.

- Definir un plan para los próximos 10 años, en base a las líneas de trabajo y prioridades del Plan General de Promoción del Uso del Euskera

  El plan estratégico recogerá los objetivos, estrategias y acciones para el periodo 2021-2030, teniendo en cuenta los ámbitos indicados por el Gobierno Vasco en el EBPN; y dichos objetivos establecidos para un periodo de 10 años se traducirán en acciones concretas. Así, se irán realizando evaluaciones intermedias del plan, con el objetivo de medir el grado de cumplimiento del mismo. Se deberán definir los indicadores para medir el grado de cumplimiento.

3. Criterios para la valoración de las propuestas

Además de tener en cuenta el precio, a la hora de valorar las propuestas se considerarán los siguientes criterios:

- Calidad del informe técnico presentado por la empresa adjudicataria
- Metodología de trabajo propuesta para el desarrollo del plan
- Curriculum y experiencia del grupo de trabajo encargado del diseño y elaboración del plan.

En el informe técnico, el contratista deberá desarrollar, al menos, los puntos recogidos en el apartado 2. Dichos puntos se entenderán como un mínimo, y la empresa adjudicataria podrá realizar las propuestas que considere oportunas, con el fin de mejorar la calidad del proceso.

4. Plazo de ejecución:

- El adjudicatario tendrá un plazo total de 6 meses para finalizar el trabajo, contado a partir de la firma del contrato.

5. Presupuesto

- Un total de 34.000 euros (IVA incluido):

Dicha cantidad se utilizará para el desarrollo del proceso participativo y la elaboración del plan, así como para el desarrollo del plan de comunicación (incluidos todos los soportes comunicativos).

En Pasaia, a 5 de marzo de 2021

DEPARTAMENTO DE EUSKERA DEL AYUNTAMIENTO DE PASAIA